

Tarifako kroskoak.

Yazira Tariq antzinako hiri arabiarretik gertu, pinu baso trinko bat hedatzen da itsasertzeraino, eta jarraipena dauka itsas azpian ere, beste baso bat, ezkutatu eta murgildua, hazten baita hemen.

Gibraltargo Itsasarteko eremu estrategikoan Tarifa lurmuturra aurkitzen da, Penintsula Iberiarrean hegoalderen dagoen lekua. Hemen aurkitzen da Mediterraneo itsasoko eta Atlantiar Ozeanoko uren arteko banalerroa. Inguru honetan korrante indartsuak izan arren, *Saccorhyza* generoko laminarien bizirik diraute harkaitzetara atxikirik. Alga arre hauek oso ohikoa ez den espezie batekoak dira eta bi metrotako luzerara irits daitezke. Udazkenean estipea eta orria galtzen dituzte, udaberrian berriz birsortzeko.

Baso guztiek bezala, honek ere baditu biztanle misteriotsuak, irudimenetik irtendakoak diruditen izakiak. Arraia uhinduak edo mosaiko-arraiak izen hau hartzen du oharkabean gertatzeko aukera ematen dion bere azaleko diseinu berezia dela eta. Algen artean gelditzen diren hareazko soilguneetan bizi da, eta gaueko ohiturak ditu.

Baso honen sakonean, hareazko hondoetan, beste sekretu eta elezahar batzuk gordetzen dira. Laminaria algek euskarri zurrun berezia aurkitu dute hemen, hondoan zehar sakabanaturiko zeramikazko ehunaka anfora. Itsasontzi baten antzinako zama, duela mendeak hondoratu eta ahaztua.

Kroskoak ohikoak dira kostalde hauetan, itsas zirkulazioa bizia izan baita antzinetatik. Baelo Claudia hiri erromatarra Kristo aurreko II. mendearen bukaeran sortua izan zen, Bolonia senadiaren mendebaldean. Barnealderantz Sierra de la Plata eta San Bartolome mendizerrak zituenez bere komunikabide nagusia itsasoa izan zen, aberastasun iturri izateaz gain. Atunaren arrantza eta egiten zituzten gazitu eta arrain kontserbak zirela-eta, merkataritza bizia sortu zen Afrika iparraldearekin.

Nahiz eta II. mendean itsasikara suntsitzailea pairatu, Baelo Claudiak bere aktibitatea mantendu zuen VII. mendera arte. Hondoratzeen hondarrek, merkatal eta itsas aktibitate bizi horren aztarnak, gizakion diru gosearen biktima izaten jarraitzen dute. Itsasoak mendeetan zehar gorde duena hilabete gutxitan desagertzen da bidegabeko ebasleen eskuetan, gizateriaren historiaren benetako lapurrak.